

# Pantailak 0-6an, zertarako?

08:30 - 09:00 **ATE IREKIERA**

09:00 - 09:15 **SARRERA – HIK HASIKO KIDEAK**

09:15 - 10:30 **HITZALDIA. “Zer zentzu dute pantailek Haur Hezkuntzan?”**

**ANNA RAMIS**, hezitzaile, pedagogo eta pantailekiko mendekotasun goiztiarrean aditua.

-Gaur egun pantailek 5 urtetik beherako haurrengan duten eraginari buruz dakiguna.

-Topikoak eta mito teknologikoak, eta familia- eta haur-kontsumo digitalaren gaineko presio komertzial eta soziala.

-Familia-errealitate post-pandemikoa:

Familia eta lana telelanarekin uztartzea?

Pobrezia endemikoa eta haurtzaro txikia.

-Familiek haur-hezkuntzako ikastetxeei egiten dizkieten eskaeren egungo joera bikoitza

-Haur-eskola zentzuzko bidegurutze berri batean:

Ikastetxeetako pedagogia- eta antolaketa-erabakiak.

Familiekiko elkarrizketa.

10:30 - 11:20 **HITZALDIA. “0-6 urteko haurrek badituzte baliabide psikiko egokiak pantailen aurrean aritzeko eta hor jasotzen dutena kudeatzeko?”**

**ALVARO BEÑARAN**, Pedagogia Terapeutikoan lizentziatua eta ASEFOPeke prestatzailea eta lehendakaria (Praktika Psikomotorreko Eskolen Europako Elkarteak).

Hitzaldi honetan ez da azalduko teknologiaren alde edo kontrako debatea baizik eta zer nolakoa den pantailen presentzia eta eragina helduen eta haurren arteko harremanetan eta, halaber, azken horien psikismoaren garapenean eduki dezaketen eragina aztertuko dugu.

Pantailek ez dituzte giza harremanak ordezkatu behar eta ez dute inbaditu behar haurren barruko emozio, sentimendu eta irudien mundua, hau da, eraikitzen ari diren beren buruarekiko eta munduarekiko irudia eta iritzia.

11:20 - 11:40 **BI HIZLARIEI GALDERAK**

11:40 - 12:00 **ATSEDENA**

12:00 - 12:50 **HITZALDIA. “Pantailak 0-6 adin tartean: gidaritza digitalaren beharra azalarazten”.**

**AMAIA ARROYO SAGASTA** Komunikazioan eta Hezkuntzan doktorea eta teknologia digitaletan espezializatutako Hezkuntza Bereziko irakaslea eta ikertzailea HUHEZIn.

12:50 - 13:40 **ESPERIENTZIAK**

13:40 - 14:00 **AMAIA ARROYO SAGASTA ETA ESPERIENTZIEI GALDERAK**